

# INTERSEKZIONALITATEA



# 3. Intersekzionalitatea

Aurreko gaian, maskulinitateak jorratzean, honen inguruan hitz egin genuen. Gogoratuko zenuke zer den intersekzionalitatea?

**Zer dira pribilegioak:** Jaiotzez bizitza errazagoa egingo diguten ezaugarri fisiko, sozialak edo ekonomikoak dira. Zenbat eta gehiago izan diskriminazio, eraso edo presio gutxiago jasango dugu. Pribilegioek ez diote eragingo bizi duzunari, baizik eta horiekin biziko ez duzunari baizik.

- Bizi garen jendarte **arrazista** honetan, etnia nagusiko pertsonak, pribilegioak dituztela beste pertsonen gain.
- Bizi garen jendarte **kapitalista** honetan, ekonomia gaitasun gutxiago duten pertsonak pribilegio gutxiago dituztela.
- **Kapazitista** den jendarte honetan dibertsitate funtzionala duten pertsonak pribilegio gutxiago dituztela.
- Gure jendarte **heterozentriko** honetan, heterosexualak diren pertsonak, beste sexu aukera batzuk dituzten pertsonak baino pribilegio gehiago dituztela.
- Gure jendarte **zisnorbatibo** honetan, zis pertsonak, trans pertsonak baino pribilegio gehiago dituztela.
- Jendarte **sexista** honetan, gizonak, gizon izateagatik emakumeek baino pribilegio eta ondorioz eskubide erreal gehiago dituztela.

Besteakbeste...

El Tornillo 02x18: "Los privilegios"/  
Irantzu Varela



# 3. Interseksionalitatea



Interseksionalitatea feminismoaren hirugarren olatutik aurrera feminismoaren oinarrietako bat bilakatu da. Aurretik feminismoa ez zegoen emakume guztiei zuzendurik, non zeuden emakume arrazializatuak, migratuak, lesbianak, transak eta abar?


Kimberlé Williams Crenshaw izan zen 1989an kontzeptu hau lehen aldiz erabili zuena. Gainera, Emma Degranffenreid kasuak eraman zuen gai honen inguruan hitz egitera.

Honela definitu zuen pentsalari feminista honek **interseksionalitatea**: "pertsonek bakoitzak zapalkuntza edo pribilegio multzo bat izatea kategoriatan sozial ezberdinen parte izateagatik". Aipatu beharra dago zapalkuntza hauek ez direla modu aislatuan edo bananduan analizatu, osotasuna izan behar baita kontuan.


Har dezagun adibide bat. Bi emakumeren egoera aztertuko dugu: Amaia eta Ariane. Amaia emakume zis, zuri eta heterosexuala da; eta Ariane berriz, emakume, zis, atzerritar eta lesbiana da. Berdina ahal da emakume hauen egoera? Ze zapalkuntzek zeharkatzen dituzte emakume hauek?

Hurrengo orrialdeko irudietan ikusi daitekeen moduan Amaiak sexismoa jasango du, eta Ariane berriz, sexismoaz gain, arrazakeria eta lesbofobia ere pairatuko ditu.

# 3. Intersekzionalitatea



Bigarren argazkian ikus daiteke nola gainjartzen diren zapalkuntzetako bakoitza Arianeren kasuan (arrazakeria, sexismoa eta lesbofobia):



# 3. Intersekzionalitatea

Aurretik aipatua izan den moduan, feminismoaren azken olatuan (laugarrean) feminismoen inguruan hitz egiten hasten da; **singularretik pluralera** pasatuz emakume bakoitzaren beharrak kontuan izaten.

Garai honetan sortzen dira transfeminismoa, feminismo postkoloniala, ekofeminismoa, feminismo beltza eta abar.

## TRANSFEMINISMOA



Transfeminismoak trans pertsonen eskubideak eta feminismoa uztartzen ditu.

## AFROFEMINISMOA

Afrofeminismoa feminismoaren korranteetako bat da, non emakume beltzen zapalkuntza konkretua azaleratzen den.



# 3. Intersekzionalitatea

## FEMINISMO DEKOLONIALA



Feminismo dekolonialean emakume beltzak kontuan izateaz gain, emakume indigenen, migratuen eta musulmanen zapalkuntzak hartzen dira kontuan.

## EKOFEMINISMOA



Ekofeminismoak ekologismoa eta feminismoa uztartzen ditu. Bizitza ereduaztertzen du mugimendu honek (zisheteropatriarkala, kapitalista eta koloniala. Eta pertsonen eta munduak jasaten dituen arriskuak ere azaleratzen dituzte, bizitzak erdigunean jarriz.